

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA:

Bilbotik Madrilera, harkaitza biguntzen **RAMON SOLA > 11**

2020ko urtarrilaren 11 | XIV. urtea • 654. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

EUSKARAZ BIZI ETA LAN EGIN NAHI DUT

> 12 Andoni CANELLADA | FOKU



Venezuela: Presioa handitu denean, kontraesanak areagotu egin dira (II) 04

Mila miloi animalia desagertu dira Australiako suteen ondorioz 08

Euskara eremu sozioekonomikoan sustatzeko plana 12

Paretek hitz egingo balute 16

«Lur eta Amets», gure historia, guretik 18

Izotz azpiko igelak 22

Ataungo San Gregorioko Errotatxok eta Zerrategiak arbasoen ahotsa dakarte 26


Sarean 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Aurreikuspenak egiteko abstrakzio maila egokia
- 10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Ama lurra
- 11 **Ramon Sola:** Bilbotik Madrilera, harkaitza biguntzen
- 15 **Unai Gaztelumendi**
- 20 **Beñat Gaztelumendi:** Izenak
- 21 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Mundu bat zuri
- 29 **Koldo Sagasti:** Mundu zoroa
- 29 **Oihane Larretxea de la Granja:** Loretxu
- 31 **Montse Maritxalar:** Garapen iraunkorrerako teknologiak



{ datorrena } **Iñaki Soto**

Aurreikuspenak egiteko abstrakzio maila egokia

Urte aldaketa, are gehiago aurten bezala da-
ta borobila bada, aurrera begirako adituen
iradokizunak irakurtzeko aukera ona da.
Noizbait aipatu dut, adi adituekin. Beren
burua horrela aurkezten dutenen %10era
ez da iritsiko maila ematen dutenen kopu-
rura. Gainera, gertatzen dena azaltzea zaila bada, zer esa-
nik ez gertatuko dena aurreikustea.

Gaur egun aurreikuspen gehienak teknologiaren alo-
rrekoak izaten dira. Aurten edo are datorren hamarka-
dan gertatuko denaren iradokizunak egiterako orduan,
ordea, teknologien atzean dauden kultur aldaketei bu-
ruzko gogoetak bereziki interesgarriak iruditzen zaizkit.
Adibidez, irakurri ditudan jite horretako artikuluetan,
auzien azterketan konplexutasuna kontuan hartzeko
beharra nabarmentzen da.

ABSTRAKZIO MAILA

Norabide horretan, noizbait
hemen aipatu dudanez Azeem
Azhar-en gogoeta bat berezi-
ki interesgarria iruditzen zait
[www.exponentialview.co].

Aurreikuspenak egiteko
garaian, bi joera identifika-
tzen ditu Azhar-ek. Alde ba-
tetik, aurrerakuntza teknolo-
gikoen ikuspuntu mikroa
hartzen dutenen begirada
dago, alegia, konputazio abiadura handituko duten txi-
pen garrantzia bezalako auziak aztertuko dituzten adi-
tuak, adibidez. Beste alde batetik, makro ikuspuntua
landuko dutenak egongo lirateke, mundu mailako es-
kualdeen arteko desoreken bilakabidea aztertuko duten
adituak, beste adibide erreala bat jartzeko.

Azhar-en ustez, ordea, makro eta mikro ikuspuntu ho-
rien artean kokatzen den lerroan egin daitezke gure bizi-
moduak ulertu eta nola aldatuko diren aztertze-
ko aurreikuspenak interesgarri eta emankorrenak. Bere ustez,
maila horretan kokatzen baitira gure gizarte erakunde
garrantzitsuenak, gure bizitzaren parterik handiena eta
garrantzitsuenak ematen dugun tokiak, hain zuzen ere.

Norbanako esperientziaren eta mundu mailako joeren
arteko esparru esanguratsu gisa, Azhar-ek hiriak, komu-
nitateak, enpresak eta industriak aipatzen ditu.

KONPLEXUTASUNA HAUTEMAN ETA PROZESATZEKO ERAK

Gure hezkuntza eta kultur sistemak abstrakzio mailok
identifikatu eta horiekin lan egiteko gaitasunak bermatzen
ote dituen zalantzak ditut. Ez naiz goi mailako gaitasunez
ari, baizik eta oinarritzoei buruz, alegia, irakurri, zenbatu
eta idazteaz.

Alor horretan, hezkuntzan oraindik dirauen zientzien
eta humanitateen arteko banaketa zorrotzaren mugak
behin eta berriz azaltzen dira. Akademian kezka hori
egon badagoela argi dago. Adibidez, UPV-EHUko errektoreak,
Nekane Balluerkak, kurtso-hasiera ekitaldiko hi-

Makro eta mikro ikuspuntuen artean
kokatzen den lerroan egin daitezke gure
bizimoduak ulertu eta nola aldatuko
diren aztertze-ko aurreikuspenak
interesgarri eta emankorrenak

tzaldi bikainean aipatu zuen auzietako bat izan zen. Al-
daketa teknologiko horiek ulertezinak eta kudeaezinak
dira soilik aparatuek ari bagara. Bertrand Russell-ek
energia atomikoaren garapenaz egindako gogoeta perti-
nentea da hemen: garapen teknologikoarekin batera ga-
rapen etikoak ez badira ematen arazoak izango ditugu.

Gailuen garapenak ekar dezakeenaz harago, aurrera
begira, idazten eta irakurtzen dutenen, baita zenbatzen
dakitenen eta ez bata eta ez bestea egiten ez dutenen ar-
teko aldea ere gero eta handiagoa izango dela aurreikus-
ten da. Ildo horretan, kontuz ibili behar da bai «hau oso
sinplea da» bai «hau ulertezina da» ere esaldi positibo
gisa azaltzen dutenekin. •

VENEZUELA ERASOPEAN (II)

Chavismoaren kontraesanak areagotu egin dira presioa handitu den garaiotan

Venezuelan bi konfrontazio nagusi bizi dira azken bi hamarkadotan. Lehen, Venezuelako herriaren eta inperialismo yankiaren artekoa; alde batean bide propioa egin nahi duen herri bat, eta, aurrez aurre, eredu eraldatzaile batekin bukatu eta Monroe doktrinari eutsita “atzeko patrioko” baliabide naturalak bereganatu nahi dituen inperialismo yan-
kia. Bigarrena, gainditu beharreko estatu eredu baten eta eraikitze bidean den estatu berri baten arteko lehia.

Lehenengo talkari dagokionez, chavismoaren indarrak batuta aritzen dira inperioa-

 POLITIKA / Iñaki ETAIO

Venezuelaren kontrako presioa handitu den garaiotan, chavismoaren barneko kontraesanak areagotu egin dira. Militante chavistekin mintzatzeak eta zenbait komuna bertatik bertara bisitatzeak barne talkak hobeto ulertzen laguntzen dute. Historiaren motorra klase borroka baldin bada, chavismoaren barruan ere badauka bere isla.

ren kontra eta kanpoko interbentzioa txalotzen duten eskuineko sektoreen aurka. Prozesuaren garapenari buruz ezkerreko eragileek irakurketaz ezberdinak izan arren eta gobernuaren eta erakundee-tako kargu batzuen kontrako

Sozialismoaren eraikuntza da iparrorratza Venezuelan zehar sortutako komunetan. Iñaki ETAIO

ustelkeria eta klientelismo salaketak presente egon arren, chavistak oso kontziente dira batasunaren garrantziaz eta era neurtuan jokatzen dute. Chavismoaren sektore eta eragile guztiek dakite gobernu mantentzea ezinbestekoa dela prozesua salbatzeko, bai sozialismoaren eraikuntzan aurrera egin ahal izateko, bai eragile iraultzaileek estatuaren errepresioa jaso gabe lan egiten jarraitu ahal izateko. Hein handi batean, kanpoko eraso bortitza da uneotan chavismoaren batasuna mantentzen duena. Era berean, esan daiteke ere Maduro bera dela chavismoa batuta mantentzen duena, chavisten artean sostengu zabala baitu.

Bigarren konfrontazioa, jendarte sozialista eraiki nahi duten iraultzaileen eta erreformista eta burgesen artean gertatzen da, mugimendu chavista zabalaren barruan ere presente daudenak. Pentsa, Chavez presidentearen lehenengo urteetan hasi zen jada “boliburgesiak” hitz egiten: gobernuan bertan eta estatua-
ren aparatuan inkrustatuta zeuden “pseudochavistak”.

Burokrata horiek, diskurtso chavista ahoan eta *franela* (kamiseta) gorri jantzita, beren botere posizioez baliatzen dira interes propiorako, proiektu bolibartarrean eta sistema eraldatzean sinetsi gabe. Are gehiago, sistema eraldatzeak beldurra ematen die, beren pribilegio egoera galduko luketelako.

Chavismoaren gorakada geldiezina ikusita, proiektura gehitu ziren goranahiek eta oportunistek karguak okupatzen dituzte gobernuan eta estatu egituretan, departamentuetan, alkatetzetan eta



bestelako administrazio gune askotan kasu. Horietako batzuk beren negozioak egiteko aritu dira botere guneetatik, beren influentzia erabiliz, eta burgesia berri bat osatu dute.

Horiekin nahastuta, mugimendu soziopolitikoaren militante ohi batzuk ere badaude, boterea kudeatzen eroso sentitzen direnak. Gaizki

Burokratak, diskurtso chavista ahoan eta «franela» gorritz jantzita, beren botere posizioez baliatzen dira interes propiorako, proiektu bolivartarrean sinetsi gabe

Militante ohi batzuk ere boterea kudeatzean eroso sentitzen dira. Gaizki ulertutako pragmatismoa ardatz, jarrera kontserbadorearekin jokatzeko dute

ulertutako pragmatismoa ardatz, jarrera kontserbadorearekin jokatzeko dute. Bada, sektore eta jokabideok prozesuaren garapena ahultzen dute, baita kargu politiko eta administratiboetan dauden beste buruzagi eta militante chavista askoren lan zintzo eta saiaturia ere.

Chavismoaren hasieratik presente egon badira ere, Chavezen figuraren desagerpen fisikorekin eta azken urteetako egoera larriarekin indartu egin dira jarrera desbideratzailerak eta erreformistak. Izan ere, Madurok aurre egin beharreko testuingurua benetan zaila izan da. Chavezen desagerpenari lotutako etsipen emozionalari, krisi ekonomikoari, *guarinba* eta eskuin faxistaren erasoei, atentatu saiakeriei, desinformazio mediatikoari eta mota guztietako eraso inperialistei aurre egin behar izan die, denbora eta arreta handia arazooi emanda.

EEKIMEN PRIBATUA BERRINDARTZEN

Ekoizpena handitzea Venezuelan lehentasuna den garaiotan, gobernuaren sektore batzuetatik enpresa pribatuak efizienteagoak direla ikusarazten da. Hala, enpresoi bidea zabaltzearen alde egiten da, esku pribatuetatik berreskuraturako lurak bueltatuz, finantzazioa erraztuz edota aktibitate batzuen kudeaketa transferituz (kanpoko produktuen inportazioa kasu). Ildo horretan, enpresa publiko eta kooperatiba batzuek izandako porrotak sektoreon alde jokatzeko du.

Betikin familia handien esku ez ezik, egindako kontzesioen zati garrantzitsu bat boliburgesiaren esku geratzen dira. Modu horretan, gobernuan bertan txertatuta dauden sek-

tore sasichavista boteretsuak atzerapausoak ematen ari dira ekonomiaren sozializazioan, eta burgesiari kendutako hainbat esparru ekonomiko burgesiaren esku geratzen ari dira berriro ere.

«BURGESIA IRAULTZAILEA»

Testuinguru horretan kokatu behar da Wilmar Castro Nekazaritza eta Lurren ministroak erabilitako kontzeptu kontrastankor berria: “burgesia iraultzailea”, hau da, barne ekoizpena handitzeko prest legokeen burgesia. Produktu eta zerbitzuak lortzeko estutasunaren aurrean, enpresa kapitalisten bidez ekoizpena eta inportazioak handitzeak hornikuntza arazoa leuntzen lagunduko luke, bai behintzat gobernutik ondo planifikatuta eta kudeatuta eta salmenta prezioak kontrolatuta eginez gero (egungo Venezuelan oso zaila dena). Horrek ez luke prozesuaren erradikalizazioan lagunduko, baina prozesua babesteko lagungarria izango litzateke, gobernuari arnasa eman eta herriaren sektore zabalen egoera zaila arinduko bailuke.

Uneotako erresistentzia fa-sean, tresna kapitalisten erabileraren prozesua bizirauteko kontzesio bezala ulertzerik egon badago. Pauso bat atzera, bihar bi pauso aurrera eman ahal izateko. Hala ere, hori onartzetik irabazi tasa handitu eta kapitala biltzeko logika kapitalistan aritzen den burgesia bati “iraultzaile” deitzera tarte bat dago, chavista askok adar jotze gisa hartzen dutena.

SISTEMA KOMUNALA

Agertoki horretan, barne tentsioak azaleratzen dituen elementu gako bat dago: sistema komunala. Behetik eraikitako



Blokeoaren aurkako martxa Caracasen, 2019ko abuztuan. Iñaki ETAIO



estatu komunala egungo estatua ordezkatzeko pentsatuta dago, herriaren protagonismoan eta ahalduz giltza jarrita eta jendarte berri baten antolaketaren osagaiak bilduta: ekoizpen baliabideen jabe goa (lurra barne), ekoizpena eta banaketa, parte hartzea eta erabakitze prozedura, segurtasuna, autodefentsa...

Aurretik esperientzia batzuk bazeuden ere, Chavez aitortu behar zaio apustu ausart eta estrategiko hori, behin estatu burgesaren egiturak erabiliz estatu hori bera gainditzea ezinezkoa dela egiaztatuta abian jarritakoa. Marxismoak estatuaren aferari arreta jarri badio ere, ez dago esperientzia arrakastatsurik sozialismoa eraikitzeari dagokionez,

behin estatu burgesaren agintea politikoa lortuta, bere eremu eta logiketan aritu baldin bada. Kontrakoarena, bai. Estatu burgesaren egiturak erabiliz sozialismoa eraikitze saiakera gehiegi ito dituzte odolez historian zehar.

Chavezek 2006an planteatu zuen estatu komunala eraiki-

Venezuela, sozialismoaren eraikuntzaren iparrorratza komunak dira.
Iñaki ETAIO

Egungo erresistentzia fasean, tresna kapitalisten erabilera prozesua bizirauteko kontzesio bezala uler daiteke. Pauso bat atzera, bihar bi pauso aurrera eman ahal izateko

Ministerio batzuetatik komunek sostengu materiala eta ideologikoa jasotzen duten aldi berean, agerikoa da beste instantzia publiko batzuek duten beraien kontrako jarrera

tzeko beharra. Handik gutxira, osaketa eta funtzioak zehazten dituzten legeak garatu eta komunetarako ministerioa sortu zen. Egiturak ere hasi ziren sortzen, txikitik handira: kontseilu komunalak (gutxienez 150 familiak osatuta), komunak (gutxienez bost kontseilu komunal barnebilduta) eta hiri komunalak (egitura eta eskumen askoz konplexuagoekin). Hiri komunal guztiak batuta, estatu komunala osatuko litzateke azkenean, estatu zaharra ordezkatzeko lukeena. Prozesu horren garapena, ordea, ez da batere erraza izan.

Chavismoaren lehen hamarkadak (1999-2008) herentzia oso astun zeukan gainean: hamarkada askotan pilatutako inertziak, bizioak, kontrol fal-

ta, ustelkeria, petrolioaren guztiz menpekota zen dibertsifikatu gabeko ekonomia, ekonomia informal orokortua, delinkuentzia, bazterketa sozial izugarria...

Arazoak arazo, sistema komunala eraikitze prozesua indartsu hasi zen, herri sektore handi bat mobilizatuz. Baina laster hasi ziren gauzak okertzen. Chavez 2013an fisikoki desagertzeak agerian utzi zuen Latinoamerikan hain ohikoa den "buruzagikeria" arriskutsuarekiko dependentsia, bere gauza on eta txarrekin. Chavezekiko atxikimenduak bideratu zuen aldaketa, Chavezek gerturatu zuen populazioaren sektore zabal bat sozialismora, Chavezen diskurtso zein neurrien bidez he-

rria politikoki formatu zen. Baina prozesu baten norabidea pertsona baten esku (buruan, hobeto esanda) egoteak ahultasun handia erakusten du ere. Eztaba daezinezko liderrik gabe, prozesu bolibartarra ahulduta geratu zen.

Gauzak horrela, Maduro presidentearen lehen pausoak ez ziren batere samurrak izan. Hasteko, bere presidentetzaren lehen urteetan izandako petrolioaren prezioaren jaitiera handiak diru sarrerak nabarmen mugatu zituen (2013tik 2017ra Venezuelako barne produktu gordina %36,9 jaitsi zen). Aldi berean, prozesuarekin bukatzeko ofentsiba areagotu egin zen barrutik zein, bereziki, kanpotik.

Ebidentea da testuinguru hori ez dela sistema komunala eraikitzeko aproposena, cha-

Hugo Chavezen figuraren desagerpen fisikoarekin eta azken urteetako egoera ekonomiko larriarekin indartu egin dira jarrera desbideratzaileak eta erreformistak

Gobernuan txertatutako sektore sasichavista boteretsuak atzerapausoak ematen ari dira ekonomiaren sozializazioan, burgesiarentzat sektore ekonomikoak berreskuratzen ari dira

vismoa ugaritasun eta hedatze egoeratik eskasia eta erresistentzia egoerara igaro ostean bat-batean. Hala ere, gabeziak beste bide batzuk asmatzera behartu du, efizientzia eta ekoizte hutsa borroka ezinbesteko bihurtuta. Horrela ulertu dute komunero askok eta autogestionatzeko eta ahalduntzeko ahaleginak indartu egin dituzte, baina, ekidinezina zen bezala, gobernuan eta admi-

nistrazioan azken urteotan indartutako sektore burgesekin egiten dute talka.

INTERES KONTRAJARRIEN BORROKA

Esperientzia komunal batzuk beste eredu bat posible dela erakusten ari dira. Herria antolatuta eta baliabideak erraztuta, herritik herrira ekoiztea eta bitarteko enpresa pribaturik gabe produktu asko merkatura helaraztea posiblea dela erakusten ari dira. Horren aurrean, aipatutako sektore burgesen asmoa komunaren zabaltea oztopatzea da, nahiz eta publikoki ezin duten aitortu.

Paradoxa izugarria da. Gobernuak ministerio batzuetatik komunak sostengu materiala eta ideologikoa jasotzen ari diren aldi berean, agerikoa da beste instantzia batzuen komunaren kontrako jarrera. Bide ba-

tez, gobernuaren barruko interes eta asmo kontrajarrien borroka isila plazaratu egiten da horrela.

Komunetan antolatutako chavisten erronka nagusia sistema komunala indartzea, sektore gehiagorekin saretzea da, jendartearen gero eta presentzia eta botere handiagoa izateko. Modu horretan, beste eragile eta sektore kontzienteenekin batera, aurre egin ahal izango diote burgesia tradizionalak eta boliburgesiak gobernuaren eraginari. Bakarrik antolakuntzatik eta ahalduntzetik geldituko dute chavismoan egon den atzera-martxa graduala, soilik horrela erradikalizatuko dute prozesua.

Komunero asko kontziente dira beren eguneroko borroka etorkizuneko estatu komunaren enbrioia dela.

Ezkerrean, Caracas hiriburuko Altos de Lidice komunako liburutegia. Eskuineko indarrek liburutegi komunalari eraso egin zioten 2017ko «guarimba» larrietan. Eskuinean, El Maizal nekazari komuna. Uneotan, oso zaila bilakatu da Venezuelako nekazaritza lanetarako makineria eskuratzea blokeoaren eraginez. Itziaki ETAIO



AUSTRALIA SUTAN

Mila milioi animalia desagertu dira jada herrialdeak bizi dituen suteen ondorioz

INGURUMENA / GAUR8

Belgika bi aldiz adinako lurraldea kiskali da irailetik hona Australian suteen ondorioz. Larrialdiak eragin zuzena du ekosisteman eta, Sydneyko Unibertsitateak jakitera eman duen ikerketaren arabera, mila milioitik gora basapizti hil dira dagoeneko. Adituen ustez, hamarkadak beharko dira egoerari buelta emateko. Ematerik baldin badago.

Australiako fauna aberatsak, gure begietara batez ere koalek eta kanguruak irudikatzen dutena, hamarkadak beharko ditu uhartea zigortzen ari diren suteen eragina gainditzeko. Egiten badu.

Iazko irailean hasi ziren suteen ondorioz, hogeit hamar pertsona zendu dira jada eta Belgikako azalera bikoizten duen lurraldea erabat kiskali da. Hori bai, suteak basapiztientzat izan dira batik bat kaltegarriak: kaleratu berri den ikerketa baten arabera, 500 milioi inguru animalia desagertu dira Australiako estatu bakar batean.

Australia bizitzen ari den krisiak agerian utzi du larrialdi klimatikoaren eragin zuzena. Izan ere, suteak ohiko sute aroa heldu baino lehenago iritsi dira. Ez hori bakarrik, suteak inoiz baino bortitzagoak izaten ari dira.

Australiako Gobernua bera ere jarri du jomugan egoerak. Larrialdiaren aurrean ezer gutxi egitea eta ingurumenaren alde are gutxiago egitea egozten diote herritarrek. Irudiak izugarriak dira: suhiltzaileak egarriak jota hiltzorian diren koalei botiletatik ura ematen, sugarretatik ihesi noraezean ageri diren kanguru izutuak...

Australian mundu osoan bakkarak diren animalia ugari bizi dira. Bertako 300 espezie baino gehiago daude, tartean martsupialak (koalak, kanguruak...), monotremak (ornitorrinkoak, ekidnak...) eta dingoak bezalako plazentarioak. Gainera, espezie horietatik 288 (%81), Australian baino ez dira bizi, Sydneyko Unibertsitateak jakitera eman duenez.

AURREKARIRIK GABEKO SARRASKIA

Sydneyko Unibertsitateak egin duen ikerketa baten arabera, Hegoaldeko Gales Berria estatuan, 40 milioitik gora animalia hil dira irailaz geroztik suteen ondorioz. Nola kalkulatu dute kopuru izugarri hori? Ikertzaileek Hegoaldeko Gales Berriko animalia populazioa hartu eta kiskalitako lurralde azalerarekin erkatu dute. WWF Naturarentzako Mundu Funtsak egindako ikerketa bat ere baliatu dute Sydneyko Unibertsitateko adituek. Hain zuzen, baso mozketak animaliengan duen eraginaren ingurukoa.

Hegoaldeko Gales Berrian, 36.000 kilometro karratuko hedadura guztiz kiskali da. Hau da, Taiwan uharteak duen azalera. «Faunaren ikuspegitik aurrekaririk ez duen sarraski baten aurrean gaude», ohartarazi du Chris Dickmanek, Sydneyko Unibertsitateko ekolo-

Alboan, kanguruak noraezean, sugarretatik ihes egin nahian. Behean, goian, emakume bat xiringa batekin koala bati ura ematen. Behean, suteen ondorioz hildako kanguru bat. Saeed KHAN | AFP





goak. Dickmanen ikerketak, Hegoaldeko Gales Berrian bizi diren ugaztun, hegazti eta narrastiak hartu ditu kontuan, ez ordea intsektu, arrain, txan- txiku eta saguzarrak moduko piztiak. Azken horien popula- zioek ere pairatu dute, noski, suteek eragindako sarraskia.

MILA MILIOI ANIMALIA HILIK

Australiako Animalien Elkar- tearen lehendakari ohia den Dickmanek azaldu duenez, es- ku artean dituzten datuak kontinente osora hedatu eta intsektuak eta gainerakoak kontuan hartuta, hildako ba- sapiztien kopurua mila milioi- tik gorakoa izan daiteke. Izan ere, Australia osoan guztira 50.000 kilometro karratu kis- kali dira, Belgikako azalera bi- koizten duen lurralde zatia (Costa Ricaren pareko azalera).

«Animalia asko sutan kiska- lita hil dira. Ahal zutenek he- gan egin dute ihes edota lur-

pean babestu dira», azaldu du Dickmanek. «Arriskuak, ordea, hor jarraitzen du itzuli edo azalera ateratzen direnean. Azeri gorriak eta basakatuak zelatan dituzte zain».

Basapiztietan adituek adi- tzeraz eman dutenez, gutxie- nez 2.000 koala zendu dira irailean hasi ziren suteen on- dorioz. Gogoratu behar denez, koalena aurrez desagertzeko zorian zegoen espeziea da. Su- teak ez dituzte, hori bai, soilik animalia basatiek pairatu: do- zenaka milaka abere sakrifika- tu behar izan dituzte abeltzai- nek, erredurek sortutako sufrikarioarekin amaitzeko.

Suteen benetako eragina ez da zehatz-mehatz ezagutuko zientzialariak kiskalitako zo- naldeetara iristen ez diren bi- tartean, baina jada argi dago kaltea izugarria dela. Ekosiste- man arteko oreka bera ere arriskuan geratu da, kaltetuta- ko espezie askok ezinbesteko

lana egiten baitute landareen polinizazioan edota hazien ga- rraioan. Are, Dickmanen esa- netan, kiskalitako zonaldeak suteen aurreko egoerara itzuli ahal izateko behar-beharrez- koak dira desagertu egin diren hainbat espezie, habitaten osasuna bermatzeko ezinbes- teko papera jokatzen baitute.

Kalteak jasan dituzten eko- sistemak bakartuta dauden kasuetan, urte asko pasako di- ra hainbat espezie itzuli arte. «Narrasti eta ugaztun askok ez

«Animalia asko sutan kiskalita hil dira. Ahal zutenek hegan egin dute ihes edota lurpean babestu dira. Azalera irteten direnerako, hor dituzte zain azeri gorriak eta basakatuak»

Lehortea dela eta, dromedario basatiak aborigenen erreserbetara hurbiltzen ari dira ur bila. Gobernuak 10.000 hiltzea erabaki du eta frankotiratzailleak erabiliko ditu

dute mugikortasun handirik eta litekeena da batzuk seku- lan ez bueltatzea kiskalitako eremuetara», ohartarazi du Dickmanek. Gainera, egoerak eragin zuzena izango du beste ekosistema batzuetan, ibaiak kasu. «Uraren kalitatea okertu egingo da eta horrek bertan bizi diren piztien jakietan era- gina izango du», gaineratu du.

Suteak sute, Australian piz- tiek bizi duten egoera larria ez da gaurko kontua. Dickman ekologoak gogora ekarri due- nez, «kolonizazioarekin Aus- tralia bertakoak ziren 34 ugaz- tun espezie desagertu egin dira azken 200 urteetan. Datu izugarria da. Inon emandako galera-tasa handiena da».

Etorkizuna iluna da. «Alda- keta klimatikoaren azkartzea- rekin lehorte luzeagoak jasan- go ditugu eta suteak gero eta larriagoak izango dira», ohar- tarazi du Dickmanek. Egoera ikusita, Gobernuak eta zien- tzialariak elkarrekin lan egin behar dutela aldarrikatu du.

DROMEDARIOAK TIROKA HIL

Suteekin batera, herrialdeak bizi duen lehorteak era badu, nola ez, eragina animalien- gan. Dromedarioak herrietara, ba- tez ere aborigenen erreserbe- tara, hurbiltzen ari dira ur bi- la. Hori dela eta, Gobernuak 10.000 dromedario hiltzea erabaki du eta frankotiratzai- leak erabiliko ditu.

Dromedarioak ez dira berta- koak. Kolonoek 1840ko hamar- kadan eraman zituzten lur be- rrien esplorazioan zamabere moduan erabiltzeko. Indiatik 20.000 inguru eraman zituz- ten 60 urteko epean. Austra- lian dromedarioak predatzai- lerik ez duenez, egun milioi bat bizi dira herrialdean, mun- du osoko dromedario basatien populaziorik handiena.



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Ama lurra

Urte aldaketari koaderno bat bukatu eta beste berri bat estreinatzearen pareko sentsazioa hartzen diot. Ordezkatze-ekintzan bada itxiera eta atzera begirako berrikuspen bat, hasierek sorrarazitako paper zuriaren aurreko kili-kiliak tripan, eta biek, bata bestearen atzetik, jarraipen bat osatzen dute. Eta 2020. urtearen idazketan, jarraipen hari bat azpimarratu beharko banu, ama lurraren egoerarekiko afera mahai gaineratuko nuke. Iaz inoiz ez bezalako kezka piztu da jendartean, gure bizimoduak ingurune naturalean sorrarazten dituen ondorioen gainean. Eta aurten ikusaraziko da ardura horrek norainoko eraldaketa-indarra duen. Aurten, beraz, gure pribilegioak berrikusten jarraituko dugu, izan ere, ama lurraren aurrean, denok gauden boteretsu eta azpiratzaile paperean. Eta ezer ez denez kasualitatea, ama lurra sustrai femeninoekin ahoratzen da.

Pentsatu nahi dut ama lurraren zaintzagatik arduratzen garen unetik, nor bere lekutik zer egin dezakeen hausnarketan hasten dela, bakoitzaren bizi eredia kutsatzaile gisa birpasatzen eta kontsumoa birplanteatzeko denbora hartzen (hasi elikadurarekin, jarraitu energiarekin eta garraioarekin bukatu). Baina, hausnarketak, indibiduala ez ezik, kolektiboa ere behar du izan. Eta lurraldea eta hiria antolatze lanbidea dugunok erantzukizun handia dugu gatazka honetan, hirigintzaren egitekoan baliabide natural askoren kudeaketa ereduak erabakitzen direlako. Bizi eredu aldaketak abian jartzeko

politikak txertatzeaz gain, etortzear den egoerarako prest izan behar gara.

Lurraldegintzan ama lurraren zaintza lehen lerrora ekartzea iraultza itzela dela ohartzen gara. Izan ere, ama lurraren zaintzak hankaz gora jartzen ditu orain arteko pentsatzeko eta egiteko dinamikak. Batik bat, etorkizuna ziurgabetasun handiko paraje bat dela baieztatzeraz garamatza, eta, bide batez, kontrol gutxiko egoerak diseinatzeko zein prestakuntza eskasa dugun jabetzera. Lurraldea antolatze arauak eta pentsamoldeak zurruneziak dira aurki etorriko diren ur igoera, lehorte eta euri jasa handiei aurre egiteko. Berandu ari gara eta sormen ariketa handiak egitera behartuko gaituzte egunerokotasuna puskatuko duten egoera eta ondorioek. Behin-behinekotasuneko gertakizunak kudeatzen ikasi beharko dugu egunerokoaren parte bailitzan. Salbuespenak estu lotzen dituen arautegia malgutu egin beharko da ezinbestean. Noski, erresistentzia handiak daude etor daitekeenaren mapa onartzeko, sinismen ekologista ateak direla argudiatzera iristeraino.

Gogoan ditut Bilboko uholdeen biharamuna kudeatu behar izan zutenen kontakizunak; hiriak, herritarrek eta administrazioak, prestakuntzarik gabe, larrialdi egoerari aurre egin ziotenekoak. Errepideak kale zireneko egunak, lantokiak etxebizitza, plazak trasteleku, elizak ospitale. Larrialdiko hirigintza egiten ikasiko dugu, espero, aurrez salbuespen egoerak erraztasunez kudeatzeko baliabide urbanistikoak eskainiz. Lan handia aurretik, lagunok. •



Ilustrazioa: Ula IRURETAGOIENA

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Bilbotik Madrilera, harkaitza biguntzen

Eguberri egunean, euskal preso politikoen abokatuek emandako elkarrizketa mami-tsua argitaratu zen orriotan. Bide legalak jorratzeko EPPKren apustua ematen ari denaz eta ematen ari ez denaz luze eta sakon mintzatu ziren Txema Matanzas, Haizea Ziluaga eta Iñaki Zugadi. Datu eta hausnarketa potenteen artean, bazen tartean detaile argigarri txiki bat ere: duela hamarkada bat inguru gaixorik ziren zenbait preso etxera bidaltzen zituztela (espetxealdi arindu egoeran) gogora ekarrita, orain jada zergatik ez den gertatzen galdetuta, Josu Uribetxeberriaren auzia agertu zen Estatuaren balizko inflexio-puntu gisa.

Borroka hori gertu-gertutik bizi ostean, uste berekoa nintzen ni ere, abokatuok adierazi aurretik. Uribetxeberria askatzea nekez lortu bezain pronto ate hori giltzarrapoz itxi zuen PPren Gobernuak, besteak beste, horrelako kasuetan presoak aske uzteko euren bizi itxaropena bi hilabete-koa izatea ezartzen duen irizpide krudel, maltzur eta zentzugabea onartuta. Ez hori bakarrik: borroka horretan nabarmendu eta lan itzela egiten ari ziren Herri-rako kideak atxilotu egin zituzten kasu hartatik gutxira eta mugimendua bera legez kanpo jarri zuten. Orduan, gaizki egon al zen borroka hura? Ez, inolaz ere ez: Uribetxeberria hil ala biziko egoeran zen, gero tamalez egiaztatu zen bezala. Etxera ekartzeko, PPren Gobernuaren itxikeriak ez zuen beste aukerarik uzten; talka baino ez zen. Baina bistan da ez zela bide horretatik konponbide eredu sendo bat sortzerik. Talka egin eta metro bat edo bi aurreratu eta beste bat edo bi atzera egitea gerta daiteke, eta, beraz, bidean benetan aurrera egiteko, indar ezberdinak nolabait norabide berean jartzea ezinbestekoa da.

2012an jazo zen hura. Zazpi urte eta erdi joan dira geroztik eta baldintza berri ugari sortu dira, batzuk denbora hutsaren poderioz eta beste batzuk lanari eta era-

baki egokiei esker. Eta aste honetantxe sortu da benetan aurrez aurreko indarrak norabide berean jartzen hasteko aukera, Unidas Podemos barnebiltzen duen Gobernu espainol berria eratu ostean. Espetxe politika aldatzearen alde mintzatu eta urte eta erdiz urratsa atzeratu duen PSO Eko agintaria buru duen Gobernuak.

Norabide bera sortzea, elkarlana abiatzea, ezinezkoa ez dela frogatuta geratu da Paris aldean; ameskeria dirudi oraingoz Madrilen Justizia Ministerioaren eta Euskal Herriko ordezkariak baten artean euskal presoek buruzko konponbide mahai bat sortzea (edo ez?), baina badira auzia lasaitasunez bideratzen hasteko moduak. Etxeko lanak aurretik egin dituzte presoek, bide legalak pazientziaz baina erabakitasunez jorratuz. Eta horrekin egoki lerrotu da EH Bilduren posizioa PSO Eren aurrean, Gobernu berria norabide berean jartzeko guztiz zentzu-

Harkaitza biguntzeko aukera hemen da,
espetxeak husteko bidean lorpenak
alez ale urratu beharrean, geruzak
banan-banan kendu ahal izateko

duna: salbuespen neurriak indargabetzea da lehentasuna eta gero-gerokoak. Foro Sozialak aurkeztu berri duen ibilbide orria ere oso lagungarria da.

Dimentsio berria ematen dio egoerak gaur Bilbon deitu den mobilizazioari, helburuz Baionakoaren parekoa. Urterokoa da manifestazioa... baina ez da urterokoa. Erritotik asko izan du historikoki, elkartasunetik baita, jakina; orain, eraginkor, erraztatzaile, laguntzaile ere bilakatu behar da herri mobilizazioa.

Artikulu honetako lehen lerroetan aipaturiko elkarrizketan, harkaitz bat azkazalekin urratzen ari zirela sentitzen dutela laburbildu zuten abokatuek. Harkaitza biguntzeko aukera, ordua, hemen da, espetxeak husteko bidean lorpenak alez ale urratu beharrean, geruzak banan-banan kendu ahal izateko. •

EUSKARA LAN MUNDURA

Euskara Eredu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana onartu du Lakuak

Urte amaieran Lakuako Gobernuak Euskara Eredu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023 onartu du. Arlo publikoan zein pribatuan, euskara lan munduan sustatzeko lehen plana da. Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, Gobernu Kontseiluan plana aurkeztu zuenean, esan zuen azken hamarkadetan euskarak hainbat esparru irabazi dituela baina beste batzuetan oraindik ere pausoak behar direla.

Ukaezina da euskarak Euskal Herrian oro har jendarte esparruak irabazi dituela azken hamarkadetan, edo gutxienez haietan presentzia izatea lortu

EUSKARA / Xabier Izaga Gonzalez

Lakuako Gobernuak joan den abendu amaieran onartu zuen estrategikotzat jotzen duen lan munduan euskara sustatzeko plana, 2023 arteko hainbat helmuga zehaztu dituen. Euskal sindikatu nagusiek, ordea, hutsune ugari sumatu dituzte plan horretan; besteak beste, langileen hizkuntza eskubideak ez dira inon agertzen.

duela, neurri handiagoan edo txikiagoan. Izan ere, zatiketa administratiboak errealitate desberdinak eragin ditu, azken lau hamarraldietan lekuan lekuko legediari lotutako errealitateak, alegia. Legedia ez da normalizazio bidean garrantzizko faktore bakarra Euskal

Lan mundua arlo estrategikoa dela dio Lakuak, eta egiteko bide luzea dagoela. Andoni CANELLADA | FOKU

jendarte euskarak izan duen bilakaeran; izan ere, euskal lurralde guztietan herritarren borondatea eta haien parte handi baten lana erabakigarriak izan dira. Onartu beharra dago, ordea, euskara legez arautzeko aukera dagoenetik, legedia eta euskara sustatzeko

politikak ere sostengu sendoa izan direla, zenbat eta asmo handiagokoak, orduan eta eraginkorragoak. Bistan da politika eraginkorrenak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egin direla.

Joan den mendearren lehen erdiaren amaieran behea jo ondoren, are desagertzetik hurbil egotetik ere, diktadura betean hasi zen euskararen suspertze prozesua, herri ekimenetik bultzatuta. Ondoren, Hego Euskal Herriko autonomia euskara legeak onartu eta hainbat plangintza abiatu izan dira, zenbait arlotan. Plan horiek guztiak onuragarriak dira, jakina, baina nahiko al dira? Bistan da batzuk motz geratu direla ustezko helburuei dagokienez, legedian jasotako helburuei dagokienez, hain zuzen. Eta, uste izatekoa denez, helburu horiek jendartearen nahien eta beharren arabera dira.

LAN MUNDUAREN TXANDA

Euskara eremu sozioekonomikoan sustatzeko plana lau urte pasako lanaren ondorio da. 2015ean hasi ziren horretaz hitz egiten herri ekimeneko euskalgintzako erakundeak eta instituzioak. 2018an parte hartze prozesu bat abiatu zuten eta «eremu honetan euskara sustatzeko gako nagusiak jaso eta garatu ziren». Horietan oinarrituta, zenbait eragileekin kontrastatzeko fasea zabaldu zuten. Besteak beste, aldundiak, hezkuntza arloko eragileak, enpresarien elkarteak, finantza entitateak eta sindikatuen proposamenak entzun ditu Lakuako Gobernuak, diagnostikoa egin eta planaren helburuak finkatzeko.

Planaren aurkezpenean, lan mundua arlo estrategikoa dela esan zuen Zupiriak, eta bertan



bide luzea dagoela egiteko, baina hari heltzeko baldintza egokiak daudela: «Une hone-tan lehen gertatzen ez ziren baldintzak ditugu. Lan mun-dura heltzen ari diren belau-naldi berriek inoiz baino gaita-sun handiagoa daukate beren zereginak euskaraz egiteko. Baina bidea erraztu behar zaie, eta lehen aldiz Plan zehatz bat daukagu horretarako».

HELBURU NAGUSIAK

Lakuak onartu berri duen pla-nak zenbait «helmuga» zehaz-tu ditu 2023rako, helburu na-gusien betetze maila neurtuko dutenak. Lau helburu nagusi dira: euskararen ezagutza, ha-ren erabilera, hizkuntza esku-bideak, eta entitateen eta kon-sumitzaileen aktibazioa.

Hizkuntzaren ezagutzari lo-tuta, helburu hauek aurreikusi ditu planak: Lanbide Heziketan eta unibertsitateetan euskaraz ikasten duten ikasleen kopu-rua handitzea, baita enpreseta-ko goi karguetako euskaldun kopurua ere. Kasu guztietan kopurua %20 emendatzeko xe-dea dago. Hartarako, parte har-tu behar duten eragileak, tres-nak eta beste azaltzen dira.

Erabilerari dagozkion helbu-ruak berriz, honakoak dira: kontsumitzaileen eta hirigu-neetako zerbitzu enpresetan lan egiten dutenen artean era-bilera %5 igotzea, eta, eskualde industrialetako langileen eus-kararen erabilera, %10.

Kontsumitzaileen eskubide-ei dagokienez, xedea kontsu-mitzaileen dekretuaren bete-tze maila handitzea da, hura betetzen duten enpresen ko-purua %20 emendatuz.

Entitateen eta kontsumitza-ileen aktibazioari lotutako hel-buruak honakoak dira: kon-sumitzaileek zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskarien



Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak aurkeztu zuen Euskara Ere-mu Sozioekonomikoan Sustatzeko plana .
Gorka RUBIO | FOKU

kopurua %5 handitzea, hartara enpresek euskararen sustape-nari garrantzi handiagoa eman diezaioten, eta entitate-ek euskara erabiltzeagatik lor-tzen dituzten ziurtagiriak eta bestelako aitorpenak ere bost puntu igotzea.

Planak zenbait helburu es-trategiko ere aurreikusi ditu xede nagusiak lortze aldera, hala nola hizkuntza paisaian eta ingurune digitalean eragi-tea, euskara zerbitzu hizkun-tza bilakatzea, langileen eus-kara gaitasuna hobetzea, gizartearen aktibazioa lortzea, enpresetan euskararentzat ar-nasgune gehiago sortzeko au-kerak zabaltzea eta akordioak lortzea.

EREMU ESTRATEGIKOAK

Planak, halaber, euskara lan munduan sustatzeko estrate-gikotzat jotzen dituen bi es-kualde multzo zehaztu ditu. Alde batetik, EAEko hiru hiri-buruen eskualdeak eta Behe

Bidasoa, eta, beste alde bate-tik, Bizkaiko Durangaldea eta Gipuzkoako Deba eta Oria ibaien arroak. Lehen eskualde multzoan zerbitzuen sektore-ak pisu handiagoa du, eta eus-kaldunen kopurua %20 eta %50 artekoa da; bigarrenean, berriz, industriak pisu handia du, enpleguaren %15 bilduta dago eta euskaldunen kopu-rua %50etik gorakoa da.

Hauxe da, gaingiroki, abia-tzear dagoen plana. Batzuek egokia ikusten bide dute, beste batzuek ez duela balio helbu-ruak betetzeko uste dute eta ez da falta izango inposizioa eta are eskubide urraketa ere ikusten duenik. Duela ia lau hamarkada onartu zen EAEko Euskararen Legea, baina hark dioena betetzeko neurriak hartzen direnean batzuek in-posiziotzat jotzen dituzte. Pa-radoxikoki, legearen izenean eskubide politiko eta zibilak murriztea ontzat jotzen dute-nek. Euskararen Legea ez bete-

tzea, ordea, ez zaie ardura. Bes-teak beste, hezkuntza ereduen sistemaren hutsuneak nabar-menak dira aspalditik, baina, legea betetzeko neurriak aipa-tzen direnean, eskubide urra-ketak ikusten dituzte horiek.

Euskara lan munduan susta-tzeko planak indarguneak eta ahulguneak aipatzen ditu, eta lehen indargunea legedia alde izatea da, hain zuzen. Indargu-neak ondo baliatzen dira, ala presioei men egiten zaie neu-rri batean? Euskal sindikatu na-gusiek hala uste dute. Diotenez, adibidez, akordioak eta inposi-ziorik ez izatea behin eta berriro nabarmentzea, hau da, plana gauzatzea borondatearen esku uztea, «erdararen egoera hege-monikoari eutsi nahi dutenen beto eskubidea onartzea da».

LANGILEEN PARTE HARTZERIK EZ

LAB sindikatuak prentsa ohar batean esan zuenez, beste era-gile askok bezala kontrastatze-ko fasean parte hartu bazuen ere, Eusko Jaurlaritzak onartu berri duen eremu sozioekono-mikoa euskalduntzeko plana ez dela nahikoa uste du. «Sin-dikatuak kontraste fasean era-gileak izan badira ere, plan es-trategikoan ezabatu egin dira eragileen multzotik».

Amaitzeko Aurrekoetxea sindi-katu horretako euskara ardura-dunak GAUR8ri esan dio plana «hankamotz» ikusten dutela. «Ez dugu esan nahi bide bat abiatu ez dela, baina hutsune nabarmenak ditu». Plana egin aurretiko parte hartze proze-suan, eragile bakoitzak bere proposamenak egin zituen bi bileratan, planak nondik nora joan beharko zuen azalduz. Baina, LABek dioenez, bilera haietatik bi urte igarota, «han hitz egin zen terminoetatik eta aipatu ziren hainbat kontuta-tik aurkeztu dutenera sekulako

aldea dago. Besteak beste, guk han esan genuen langileek ere eragileak, subjektu aktibo izan behar dutela, bestela eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko plan batek ez duela zentzurik, euskaldundu behar bada, langileak ere euskaldundu behar baitira, eta langileen hizkuntza eskubideak bermatu behar baitira». Horretarako, neurri batzuk proposatu zituen sindikatuak eta, dioenez, planaren aurkezpenean ez dira agertzen.

LABen ustez, ez da patronalarekin bakarrik hitz egin behar, ezta bakarrik enpresa zuzendarekin edo kontsumitzaile elkarrekin ere. «Plan hori abian jartzeak langileengan eragina izango du; beraz, langileei ere parte hartzeko esan beharko zaie», dio Aurrekoetxeak. «Guri iruditzen zaigu plana kontsumitzaile dekretua betetzera bideratuta dagoela, eta horretarako neurri batzuk jasotzen ditu, batez ere dendei begira. Baina zerbitzu enpresak beste hainbat ere badira: jantokiak, anbulantziak, etxez etxeko laguntzak... Eurek zerbitzu enpresatzat ulertzen dutena eta guk ulertzen duguna ez da gauza bera. Eta hor beste lan bat egin behar da, planean aipatzen ez dena».

Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean dauden hutsunak aipatzen ditu planak, baina ez da helburu argirik eta zehatzik proposatzen, Aurrekoetxeak dioenez. «Matrikulazio kopuruari begiratuko diote adierazle moduan, eta guk uste dugu aldatu behar dena eskaintza dela. Ez zaio matrikulazioari begiratu behar, eskaintza handitu behar da, jendeak euskaraz ikas dezan».

Lan mundura salto egin aurretik landu beharreko hainbat kontu daudela dio Aurre-



koetxeak: hezkuntza ereduak amaitu, murgiltze ereduak abian jarri, lanbide heziketa... Izan ere, lan mundura sartzen direnak euskaldunak izango direla bermatzeko funtsezko arloak dira.

PROIEKTU ZEHATZIK EZA

ELA sindikatuak dioenez ere, planak ez ditu bere ekarpenak aintzat hartu eta sindikatuak eta enpresa elkarrekin ez dira eragile moduan agertzen. «Horrek argi erakusten du ez dagoela asmorik negoziazio kolektiboaren bitartez euskara planak egon daitezen». Pello Igeregi

Lau helburu nagusi finkatu ditu planak: euskararen ezagutza, haren erabilera, hizkuntza eskubideak, eta entitateen eta kontsumitzaileen aktibazioa

Sindikatu nagusien ustez, enpresetako euskara planak bultzatzeari eta langileek euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzeari dagokienez, ez da inongo neurririk aurreikusten

2015ean lan mundua euskalduntzeko Euslab plana aurkeztu zuen LABek.
Juan Carlos RUIZ | FOKU

sindikatuak euskara arduradunak dio helburuak zehaztuta agertzen badira ere, ez dagoela proiektu zehatzik, «ez dago urratsik, ezta baliabide ekonomikorik ere. Ez da argitzen nola iritsiko den helburu horietara. Enpresetako euskara planak bultzatu eta langileek euskaraz lan egiteko eskubidea bermatzeari dagokienez, ez da inongo neurririk aurreikusten».

Plana garatzeko testuinguru egokiaren beharra ere sumatzen du ELAk. «Horretarako egungo ezagutza mailak ezin dira modu naturalean aldatuko diren elementu gisa hartu, ezagutzak inpultso politikoz aldatu daitekeen elementu bat izan behar du. Horregatik, euskararen ikasketen doakotasuna ziurtatu beharko litzateke 2020. urterako. Doakotasun horrek barnebildu beharko litzuke euskara ikasketen matrikulazioaren kostua eta euskara ikasi ahal izateko denbora».

ELAk nabarmendu dituen beste hutsune batzuk adminis-


trazioek azpikontratatzan ditzuten enpresetan bermatu beharreko hizkuntza eskubideei eta hezkuntzarekin lotutako neurriei dagozkie. Sindikatu horrek proposatutakoaren arabera, «hezkuntza publiko zein itunduan finantziazio guztia soilik murgiltze eredura bideratuko da trantsizio epe baten ondoren. Lanbide heziketan plan honek irauten duen epean bermatu egingo da ikasketa guztiak D ereduaren epean ahal izango direla eta, aurretik aipatutako trantsizio epe horren ondoren, murgiltze eredura bideratuko da finantziazio publiko guztia».

Esan bezala, batzuen ustez asmo handiko plana da, beste-tzuen ustez, berriz, urria, eta, zenbaiten ustez, soberan dago. Edonola ere, planak berak sarrreran dioten moduan, «orain arte egindako urrats estrategiko guztiek hurrengo urratsa eskatzen dute, egindako guztia ezerezean geratzeko arriskua uxatuko bada».



Unai
Gaztelumendi

iRRITZIA:





IKUSMIRA



PARETEK HITZ EGINGO BALUTE

Leitzako Atekabeltza Herriguneko mural ikusgarria munduko ehun onenen artean dago, 46. postuan hain justu. Kaleko artean espezializatua dagoen Streetart360 webguneak urtero osatzen du munduko ehun mural ederrenen zerrenda eta kaleratu berri duenean agertzen da Leitzako sorkuntza. Pasa den ekainean egin zuen Murales Lianek. Atekabeltzako paretek hitz egiten dute, Murales Lianen sorkuntza da haien ahotsa orain. Baina lehen bestelakoak kontatuko lituzkete, urte askoan Guardia Zibilaren kaserna izan baitzen. Herriko sarreran kokatuta dago, Tolosarako bidean, eta hamaikatzko kontrol sufritu dituzte herritarrek pareta horren bueltan. Orduan bestelako kontuak entzuten zituzten pareta gris hotzek. Orain munduko pareta ederrenen artean dago Leitzako hori, herriak bere kolorea eman diolako. Amagoia Mujika Telleria



Jon URBE | FOKU



Lehen postua: Nils Westergardek Waynesboron, AEBetako Virginian, egindakoa.



Hirugarren postua: Nick Napoletanok AEBetako Charlotte hirian egindakoa.



Laugarren postua: Owen Dippiek Los Angelesen, AEBetan, egindakoa.



Bigarren postua: SimpleG sortzaileak Atenasen, Grezian, egindakoa.



Bosgarren postua: JDL sortzaileak Epinalen, Estatu frantsesean, egindakoa.



Seigarren tokia: Flow sortzaileak Estatu frantseseko Nancyn egindakoa.

GURE HISTORIA, GURETIK

Lur eta Ametsek historia
abentura modura
kontatuko dute film batean

 **JENDARTEA /** Amagoia Mujika Telleria

Historia nork eta nola kontatu gako garrantzitsua da. Horrekin konturatuta, 2015ean Lur eta Amets proiektua abiatu zuten Ikastolen Elkartek, Katxiporretak eta Elkarrek. Orain, Lotura Films batu zaie eta «Lur eta Amets» filma estreinatuko dute otsailaren 7an. Filma aurkezteko, Euskal Herrian barna bira egingo dute ikuskizun berezi batekin.

Lur eta Amets proiektua 2015. urtean sortu zuten Ikastolen Elkartek, Katxiporretak eta Elkar argitale-

txeak. «Gure herriaren historiaren irakurketa geure ikuspuntutik berreraiki eta eskuragarri jartzea» izan du helburu nagusia proiektuak martxan jarri zenetik eta norabide ho-

Lerroon azpian, Lur eta Amets. Datozen asteetan Euskal Herrian barna ibiliko dira beren ikuskizunarekin. Alboko orrialdean, «Lur eta Amets» filmaren fotograma zenbait.
GAUR8

rretan urrats desberdinak eman ditu. Lehendabizi, «Lur eta Amets, Euskal Herriaren historia» ezagutza liburua kaleratu zuten eta ondoren etorri ziren haurrei zuzenduriko bederatzi ipuin eta galdera-erantzun mahai jokoa.

Orain, liburuko, ipuinetako eta mahai-jokoko Lur eta Ametsek kanpora salto egin dute eta benetako pertsonaia bihurtu dira. Dagoeneko Durangoko Azokan aurkeztu ziren jendaurrera eta orain beren hurrengo proiektuarekin datoz; datozen otsailaren 7an Euskal Herriko zinemetan estreinatuko den «Lur eta Amets» filma. Lotura Films batu da urrats honetan proiektura.

Filma etorri bitartean eta horren berri emateko, Lur eta Amets anai-arrebak Euskal He-



rrian barna ibiliko dira ikuski-
zun berezi batekin. Ordubete
inguruan, historiako pasadizo
berezienetakoak ekarriko di-
tuzte jendaurrera eta horien
baitan biziko dituzten abentu-
rak kontatuko dituzte. Auto-
bus propioan iritsiko dira Lur
eta Amets herrietara, ondo
ikusteko moduan beraz.

FAMILIA OSOARENTZAT EGOKIA

Aida Solores proiektuaren par-
taideak kontatu digunez, «eus-
karaz sorturiko proiektu bat
da eta gabezia bat ikusten ze-
lako sortu zen. Euskal Herriko
historia haurrei beste era bate-
ra kontatzeko beharra ikusten
zen. Horren harira sortu ziren
liburua, ipuinak eta mahai-jo-
koa. Baina gaur egungo hau-
rrek beste era batera jasotzen
dute informazioa eta beha-
rrezkoa ikusi zen ikus-entzu-
nezko formatu bat sortzea.
Hortik dator filmaren ideia.
Animaziozko film bat da eta
historia abentura moduan
kontatzen du. Haurrentzako ez
ezik, familia osoarentzat ere
bada oso egokia. Abenturaz
abentura, Euskal Herriko his-
toriaren garai desberdinetara
bidaiatzeko proposamena da.
Haurrentzat erakargarria da,
istorio ugari ezagutzeko auke-
ra eskainiko dielako. Eta hel-
duentzat ere oso berezia eta
hunkigarria da, beraiek bizita-
ko historiako pasarte zenbait
identifikatuko dituztelako fil-
mean».

Pelikula 2017an hasi zen
ekoizten LA Ekoizpenak AIE-
ren eskutik (Ikastolen Elkarte-
a, Katxiporreta, Elkar eta Lotura
Films) eta Joseba Ponce eta
Imanol Zinkunegi dira zuzen-
dariak. Sinopsiak jasotzen
duenez, Lur eta Ametsen gura-
soak ezkontza bat dutela-eta,
amona Andereren etxean utzi-
ko dituzte asteburu-pasa. Bai-

IKUSKIZUN BEREZIA HERRIZ HERRI

Urtarrilak 11 - BILBO
BilboRock aretoa, 12:15

Urtarrilak 12 - ALTSASU
Iortia kultur gunea, 17:00

Urtarrilak 17 - EIBAR
Armeria Eskola, 18:00

Urtarrilak 18 - GASTEIZ
Aldabe kultur gunea, 18:00

Urtarrilak 19 - GETXO
Erromoko kultur etxea, 12:00

Urtarrilak 22 - IRUÑEA
Katakrak liburu denda, 18:00

Urtarrilak 29 - DONOSTIA
Aieteko kultur etxea, 18:00

Urtarrilak 31 - BARAKALDO
Clara Campoamor, 18:00

Otsailak 1 - BEASAIN
Usurbe antzokia, 17:00

na Andereren eta bere katu
Baltaxarren botereei esker, ez
da asteburu arrunta izango.
Bidaia batean murgilduko di-
ra, garai eta sasoi desberdine-
tan abentura gazi-gozaok bizi-
ko dituzte eta gure historian
zehar bidaiatuko dute.

Esanda bezala, otsailaren
7an iritsiko da euskal hiribu-
ruegara “Lur eta Amets”, baita
hainbat herritara ere. Familia
osoarentzako eskaintza da.
«Proba egin dugu eta haurren-
tzat zein helduentzat da era-
kargarria. Oso hunkigarria da.
Batzuek garai batzuen berri
ikasiko dute eta beste batzuek
zenbait garai gogoratuko di-
tuzte», gaineratu du Soloresek.





Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Izenak

Hotz amaigabe bat baino latzago». Kartzelari buruz Euskal Herrian sortu den kanta ezagunenak ez du «kartzela» hitzik aipatzen. Ez du behar. Bere esaldi bakoitzean mamitzen du kartzela zer den kalearen distantziatik; nola bizi dugun izuen gordeleku hori gaur Bilbon eta Baionan izango garenetako askok. 564 horietatik aldatu dira zenbakiak, baina kartzelak hor jarraitzen du, izena jarri edo ez, 90eko hamarkadan bezain gertu. Eta askotan, urrun.

Kuriosoa baita hitzena, izenena. Izen potoloena bereziki. Batzuei iraungitako jogurten kirats sarkorra darie. Espainiako kongresuan entzun dugu VOXeko diputatua “askatasuna” aldarrikatzen, CUPEkoak aldarrikatutako “askatasuna” ukatzeko. Hitz batzuk gabon bueltako sabelak bezain malguak dira nonbait; denontzako dute lekua. Gauza bat eta horren kontrakoa adierazteko gai dira. Eta pentsatu dut kontua akaso ez dela zer esaten den, nori eta, batez ere, nondik esaten zaion baizik.

Gazteagotan egun handi baten esperoan egoten nintzen sarri. Uste nuen iritsiko zela momentu bat «askatasuna», «independentzia» eta «justizia» bezalako kontzeptu abstraktuak iritsiko zirena. Goizean jaiki eta ogi txigortua marmeladatan bustitzen ari nintzen bitartean leihoz bestaldera ikusiko nituela. Pixkanaka ikasi dut, ordea, ezetz; “askatasuna”, “independentzia” eta “justizia” ez direla iristen, praktikatu egiten direla. Eguneroko erabaki txikiak direla, eta erabaki horiek hartu ahal izateko marko orokorrago bat ere bai. Orain ez dakit erabakiek

markoa edo markoak erabakia, zerk mugitzen duen zer.

«Kartzela» hitzak, tamalez, aspaldi utzi zion gurean kontzeptu abstraktu izateari. Gure inguruan munduko herrialde askotan baino presenteago dago kartzela, bere praktika-sorta eta hiztegi partikularrarekin. Ikasi dugu “kartzela” hitzari “hitza”, “gogorra” eta “urruna” lotzen; eta baita “sostengua”, “maitasuna” eta “elkartasuna” eransten ere. Ikasi dugu preso batzuei “politiko” deitzea debekatuta dagoela, hain zuzen ere, preso politikoak direlako. Eta ikasi dugu beste preso batzuei “sozialak” edo “komunak” deitu behar zaiela, hain zuzen ere, ez direlako: ez direlako ez sozialak eta ezta arruntak ere. Ertze-

koak dira, bereiziak, gatazkatsuak, ezkutatu beharrekoak, bere egiturazko injustiziak eta indarkeriak kudeatu ezin dituen jendarte baten soberakinak. Eta badakigu kartzelak ez duela ezer konpontzen; asko jota ezkutatu egiten du, denboran atzeratu, errua norbaiti bota eta sakoneko arazoa ukatu. Hori jakinik, aukera ederra daukagu kartzelarik gabeko edo, behintzat, kartzelatik haragoko justizia bat irudikatzeko.

Orain presoak. Orain Baiona. Orain Bilbo. Berriz ere hitz abstraktuak ibiliz praktikatuko ditugu milaka lagunek. “Autonomia” kaletik pasako gara asko. Ez dakit kale bati izen hori jarri behar izateak zer adierazten duen... •



Berriz ere hitz abstraktuak ibiliz praktikatuko ditugu milaka lagunek.

Luis JAUREGIALTZO | FOKU

{ koaderno } Itzea Urkizu Arsuaga

Mundu bat zuri

Bizitza astetan kontatzera igaro naizenetik, errepaso kronologiko absurdoak egiteari ere ekin diot. Pentsa, hortaz, hamarkada berriaren hasierak –edo, hurrengo urtean hasiko da?– ekarri didan oroitzapen zaparrada. Memoriak erreferentziatzat hartu izan dit, beti, 2000. urtera sartu gineneko Urtezahar gaua; ondo gogoan dut amonaren beldur txikia, milurteko berrian sartzearekin batera gureak egingo zuela telebistan entzun zuelako. Lekutan geratu da “2000 Efektua”.

Aski akaso ez, baina asko eta azkar gertatu da geroztik, eta hasi berri dugun urteak bere izena zenbakitan idaztera ohitu gabe harrapatu nau. Bakoiti zalea naitzelako izango da agian, edo kapikua imperfektu honek gazte baina zahar sentiarazten naudelako. Gogotsu bezain beldurti. Ezjakintasun zulo eta jakin-min zaku, aldi berean, bisurte berriak sekula bizi izango dudana aldaketarik mingots baina ederrena, erraietakoena ekarriko didalako, ziur aski. Talaia berri bat, munduari begiratzeko.

Begira diezaiodan, bada, azken hoge urteotan eguneroko gertatu baina inoiz gutxitan aldatu den mundu honi. Balia dezadan koaderno hau, zuri eta zure belaunaldia osatuko duzunoi utzi dizueguna orri zurian apuntatzeko. Finean, garaiak ikaragarri aldatu direla eta hori guri esker izan dela sinetsarazi diguten arren, berresteko, gorpilzoro berean bueltaka jarraitzen dugula. Lehen eta orain, nor bere bira errepikakorretan zorabiatzen dela egunez egun. Zilbor hestetik askatzen gaituzte bizitzeko, eta zilbor bakarraren bueltan eraikitzen dugu bizitza; hara hor, geurekoikeriaren alegoria.

Eta, bueltaka eta bueltaka, ahaztu egiten zaigu, behin batez, duela hoge urte, behi eroen gaitzak denok erotu gintuenekoa. Gran Hermano *reality*-ak Es-

painiako telebistak lehenengoz hartu zituenekoa, edo Lance Amstrongek gerora kendu zizkioten Frantziako Tour guztietan bigarrena irabazi zuenekoa. Oraindik ere literatur sariketetan emakumeak ikustea ezohiko samarra zaigun arren, 2000. urte hartan Lourdes Oñederrak Euskadi Saria jaso zuen, “Eta emakumeak sugeari esan zion” lanagatik. Jose Maria Setienek gozain karguari uko egin behar izan zion, eta Txernobylen azken erreaktore nuklearra itzali zuten, behingoz; orain telesail laudorioztatuek gogorarazi behar izan digute gertatutakoa.

Milurteko berriko hasieran, artean, “Euskaldunon Egunkaria” irakurtzeko moduan ginen eta, azal zenbaitek zioten, perituek datu argigarriak eskaini zituztela “Lasa eta Zabala kasuan”; argitu zuten iluna, bai.

2020tik aurrera ere jaioko dira egun berriak, eta bihar ere esnatuko gara, asteak hasteko eta kontatzeko. Akaso bizkarrean sentituko dugu arduraren zama, lur bortxatu honetara sortu nahi izan zaitugulako

Martxoaren 8an, berriz, emakumeen alor guztietako esku hartzea izan zen aldarrikapen feminista nagusia. Ordurako, aurreikuspen ofiziala zen EAEko biztanleria gutxitzea eta zahartzea. Baina NASAk lasaitzeko nahikoa motibo eskaini zion gizateriari, aldi hark hartu zuen kutsu futuristarekin sintonian: ur zantzuak aurkitu zituzten Marten, bertan bizitzeko aukera.

Tira, 2020tik aurrera ere jaioko dira egun berriak, eta bihar ere esnatuko gara, asteak hasteko eta kontatzeko. Akaso bizkarrean sentituko dugu arduraren zama, lur bortxatu honetara sortu nahi izan zaitugulako; mundu malapartatu honetara. Baina bizitza efemeride handiak baino zerbait gehiago da, eta gaitz erdi. •

IZOTZ AZPIKO IGELAK

Iñaki Sanz-Azkue

Hormaz, izotzaz edo jelaz. Zurituta esnatu dira inguruko zelai guztiak gaurkoan ere. Joan zaizkigu udazkeneko hego haizeak eta iritsi dira hotzak. Ondo tapatu, botak jantzi eta mendira abiatu zara. Berriz ere hor dira. Urtero-urtero putzu txiki berean aurkitzen dituzu igelen arrautzak. Urteroko poltsa itxurako arrautza lirdingatsuak. Gaur, ordea, izotz azpian topatu dituzu. Uretan, baina izotzak estaliak. Eta beti bezala galdera bera egin diozu zeure buruari: «Igelak neguaren gordinean? Nolatan?».

Urte hasiera da, eta garaiak eskatzen duen moduan, neguaren etorrerarekin, tenperaturek ere behera egin dute. Naturak, alabaina, ez du atsedunik. Azaldu dira elur-txontak Mugarra mendiko harkaitzetan, igo dira izokinak Urumea erriogan gora errutera, eta hasi dira baso-igel gorriak arrautzak jartzeko urmael bila. Hotzak ematen dien bakardadean, gustura egongo dira putzuetan. Dena eurentzat. Batzuentzat kalte dena, besteen-tzat alde delako.

Baso-igel gorria (*Rana temporaria*) hotza gustuko duen igela baita. Kontraesana dirudi, egia esan. Izan ere, badakigu anfibioak ektotermoak direla. Euren gorputzaren tenperatura ingurunekoaren menpe dagoela, alegia. Baina baso-igel gorriak metabolismoa jaitsi eta tenperatura baxuetan irauteko gaitasuna du. Ez Kanadako bere lehengusu baso-igelak (*Lythobates sylvaticus*) bezainbeste, hark gorputzeko odola izoztu eta osteria ere desizozteko abilezia baitu, baina bai hemengo neguak igarotzeko adina. Izan ere, baso-igel gorriarentzat udazken-neguko hilabeteak dira ugaltzeko aproposenak. Orduan ikusiko dituzu euren arrautza poltsa lirdingatsuak putzuen goialdeetan dantzan, eta, adi bazaude, agian entzun ere entzungo dituzu arrak urpean kantari. Igel berezion koroak urpekoak baitira. Behe-soinu ugariz osaturiko urpeko koroak.

ARRAUTZAK ETA IGELAK IZOTZ AZPIAN?

Hala, gauez tenperaturek behera egitean, ez da harritzekoa izaten putzuaren goialdean dagoen ur

geruza izoztea eta igelak izotz azpian harrapatuta geratzea. Hala, baso-igel gorriak ez ezik, horien arrautzak ere hormaturiko ur geruzaren azpian topa daitezke sarri.

Baso-igel gorriak, ordea, kimika aldeko du kasu horietan, eta izoztuta hiltzeko arriskua oso txikia izan ohi da. Airearekin kontaktuan dagoen ura da putzuan lehenbiziko izozten dena, eta, ur horrek, beste likido gehienek ez bezala, hormatzean dentsitatea txikitu eta bolumena handitzen duenez, goian gelditzeko joera du. Behin hori gertatuta, izotzak berak isolatzaile moduan jokatu du, eta, hotzak denbora askoan jarraitzen ez badu, zaila izango da beheko urak ere izoztea. Horrela, igelek goiko geruza desizozteari itxaron baino ez dute ur azpian. Izotz azpiko igelak izango dira bitartean.

BASOPETIK URMAELERA

Izenak berak esaten digu, ordea, baso-igel gorriak uraz gain, behar duela ere bere bizitokian beste habitatik: baso-igel gorria basoan bizi da. Eta horrek bere izenaren jatorriaz gain, duen kolore arrearen edo gorriaren zentzua ere azalduko digu. Basoko orbelaren artean mimetizatzeko edo ezkutatzeko erabiliko baitu bere kolorea. Hortaz, ez da harritzekoa perretxikozale askok ezagutzea. Perretxikoa hartzera doazenean egiten baitu salto orbel artean geldi-geldi zegoen igelak. Sekulako saltoa duela esaten dute gero, eta batek baino gehiagok susto ederrak hartu izan ditu!

Udaberrian eta udan, basoan daudenean elikatuko dira helduak. Ondo elikatu behar, gainera, hotzak datoze-nean ia zomorrerik ez baitute aurkituko ahora eramateko, eta gainera, uretan izan beharko baitira ugaltzeko. Ugal garaira, beraz, ondo elikatuta iritsi beharko dira, hotzari aurre egin eta ugal garaiko bizpahiru hilabeteak



apenas jan gabe igaro beharko baitituzte.

Urmaela edo putzua aukeratzeko garaian, lekuan-lekuan euren komeriak izango dituzte. Eskandinaviako hondartzetatik hasi eta Euskal Herri atlantikoraino iristen den espezie eurosiberiar honek ez baititu beti baldintza berak jasango. Gurean, esaterako, azaroan hasiko da ugaltzen kostaldean,

eta udaberri inguruan egingo du Pirinioetako aintzira altuenetan. Banaketa zabaleko espezie hau, beraz, itsas mailan aurki dezakegu; esaterako, Orioko (Gipuzkoa) Motondo izeneko eremuan, eta ia 3.000 metrotara, Pirinioetan.

URMAEL GUZTIAK EZ DIRELAKO BERDIN

Hasi aintzira eta urtegi handienenertzetan, eta pistetako putzu-zulo edo

Goian, baso-igel gorria elur gainean ikus daiteke, eta, alboan, izoztutako putzuaren barruan.

Oñatiko mugatik oso gertu, Aretxabaletako lurretan jasotako irudiak dira. Lerroon gainean, baso-igel gorria arrautza gainean eta ugalketako unean.

Iker NOVOA eta Ander IZAGIRRE EGAÑA

ur asketaraino, baso-igel gorriak ur eremu geldoak behar ditu ugaltzeko. Ibaiak, errekek eta errekaetoak dituzten baso eremuetan aurkituko duzu askotan, baina, horien urak geldiak ez baldin badira, ez dira bertan ugaltzeko. Hori dela eta, bailara itxi eta sakonetan, maiz, arazoak izan ohi dituzte ugaltzeko lekuak aurkitzeko. Oso azalera txikiko ur-eremuak erabiltzen di-

tuzte horretarako, sarri mendian irekitako pistetako putzu-zuloak, baina ur eremu horiek ere oso zaurgarriak izan daitezke. Tenperatura altuek, edota motorren edo 4x4 ibilgailuen pasatzeak hondatu ditzake arrautzak jartzeko guneak. Kasu horietan, zer egin? Hernaniko kasua jarriko dugu adibide moduan.

Urumea bailaran baso-igel gorriak populazio nahiko egonkortua duela dirudi. Bertako haran itxiek eta sakonek, ordea, ez dituzte urmael egokiak espeziearentzat, eta, garai batean izan baziren, suntsitu egin ziren etxeak eraiki edo landaketak egiteko. Putzu horiek ordezkatu zituztenak erreka-stoen aldameneko gune putzutsuak eta basogintzarako irekitako bideetan osatzen ziren putzu-zuloak izan ziren duela gutxira arte. Horiek, ordea, arriskua ere bazuten. Izan ere, igelek arrautzak bertan jarri, eta ibilgailu ezberdinen joan-etorriek suntsitzen zituzten han zeuden arrautzak, batez ere baso moztaketak zeuden garaietan. Hezegune horiek, beraz, ugaltzeko leku ia bakarrazateaz gain, tranpa ere bihurtu zitezkeen batzuetan. Horren aurrean erantzun bat eman beharra zegoela pentsatu zen. Pentsatu eta egin.

HERNANIKO MIKROHEZEGUNEEN SAREA

Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta Hernaniko Udalak eta Ereñotzuko Auzo Udalak bultzatuta, Aranzadi Zientzia Elkartek Urumea bailara eta Aia-ko Harriko Parke Naturala lotzen zituen mikrohezeguneen sarea osatu zuen 2015ean. Tamaina ertaineko urmael gutxi batzuen inguruan putzu txiki ugari sortu ziren, suntsitzeko arriskurik ez zegoen lekuetan. Putzu txiki horiek, ordea, ez dira soilik baso-igel gorriarentzat onuragarriak izan.

Epele eta Usoko erreka-ko bailaran zehar, gune estrategikoetan sortu ziren duela urte batzuk mikrohezeguneak. Hitzak dioen bezala, putzu txikiak dira. Izan ere, putzu txikiei ez zaie merezitako garrantzirik eman, nahiz eta badakigun gordetzen duten biodibertsitatea ikaragarria dela. Urte gutxian, mikro-



Goiko irudian, familia bat negu honetan bertan Erreñotzuko Aldura mendian putzu bat behatzen. Alboan, Ereñotzuko Txirrita eskolako haurrak neurketa zehatzagoak egiten. Alboko orrialdean, baso-igel gorri multzoa arrautzak betetako putzu batean. Julen AZPEITIA- Txirrita Eskola- Ander IZAGIRRE EGAÑA



Anfibioak ektotermoak dira; hau da, euren gorputzaren tenperatura ingurune-koaren menpe dago. Baina baso-igel gorriak metabolismoa jaitsi eta tenperatura baxuetan irauteko gaitasuna du

Epele eta Usoko erreka-ko bailaran zehar, duela urte batzuk gune estrategikoetan mikrohezeguneak sortu ziren. Putzu txikiei ez zaie merezitako garrantzirik eman, nahiz eta badakigun gordetzen duten biodibertsitatea ikaragarria dela

hezeguneak baso-igel gorriaren arrautzak jartzeko gune aproposak bihurtu dira. Baina horien atzetik etorri dira urmaeletara txantxikuak (*Alytes obstetricans*), uhandre palmatuak (*Lissotriton helveticus*), arrabio arruntak (*Salamandra salamandra*), apo arrunt iberiarrak (*Bufo spinosus*), eta makina bat sorgin-orratz eta burruntzi espezie, zein hegazti eta ugaztun asko, putzuak ura asetzeko eta jana bilatzeko gune-


tzat hartu dituztenak. Bailarek, dudarik gabe, aberastasunean irabazi dute.

KLIMA ALDAKETA ETA HEZKUNTZA

Hezegune gutxi horiek oso baliabide ona izaten dira ikasleekin klima aldaketaren eraginak izan daitezkeenak ikusteko. Eskola inguruetako putzu txikiak jarraitzearekin ikusiko dugu putzu-zuloak lehortu egiten direla tenperatura aldaketarekin, eta hori bera erabiliko dugu klima aldaketak eduki dezakeen efektuaz ikasleak ohartarazteko. Horrez gain, ordea, lanketa aberasgarria egin daiteke mikrohezegunetan: konpetentzia matematikoa (euren azalerak-eta neurtzen), paisaia eta toponimia (inguruko eremuak aztertzen) eta bertako espezieak (putzuetan ugalduko direnak aztertzen), besteak beste, dira landu daitezkeen arloak. Badira dagoeneko Euskal Herrian horren inguruan lana egin dutenak.

Eta eskola inguruko pista horretan arrautzak baditugu, metamorfosi osoa ikusteko aukera ere izango da. Horren aurrean, ordea, ohartarazpena egitea ere komeni da kasu honetan. Izan ere, ez dira gutxi izaten baso-igelaren arrautzak eskola barruan izaten dituztenak. Kasu horietan gomendio gutxi batzuk: aukeran, hobe da naturan bertan egitea behaketa. Bestalde, arrautza horiek ukitzean eskularru esterilizatuekin egitea komeni da beti, haiei onddo edo gaixotasunik ez pasatzeko. Eta amaitzeko, igelak ez dira sekula hartu diren lekua ez den eremu batean askatu behar. Biodibertsitate genetikoan eta populazioen dinamikan eragiten ariko ginateke zuzenki!

Naturaren biodibertsitatea eta konplexutasuna mantendu nahi badugu, beraz, ezinbestekoa da oinarritzko pausu batzuk behar diren moduan ematea eta ikasleei horiek transmititzea. Gure ezagutza espeziearen onerako zuzendu behar baita, horrek emango baitigu aukera, urtez urte, gure mendietan arrautza lirdingatsu horiek topatzeko; edo, zergatik ez, txunditurik uzten gaituzten eta izotz azpian bizi diren igel eder horien magia gure ondorengoei erakusteko.



ATAUNGO ONDAREA

San Gregorioko Errotatxok eta Zerrategiak arbasoen ahotsa dakarte errekan behera



XV. mendean Ataun herriko Kontzejuak eta Lazkaoko jaunak hitzarmen bat egin zuten: Larruntzako eta Elizaldeko errotak eta ola bat erdibana eraikitzea erabaki zuten. Gure arbasoek bazuten nahikoa ausardia, beraien etsai nagusiarekin akordio bat egin eta herriari zerbitzu bat emateko.

San Gregorion Larruntza errota eta San Martinen Elizalde errota –biak bi harrikoak– eta Larruntzako errotaren ondoan ola bat eraiki zituzten. Iturrioz azpiko askatako mearekin eta Agauntza basoetako ikatzarekin funtzionatu zuen olak 160 bat urtean. 1693an erre egin zen eta, garai horretan lehiakorra ez zelako, bertan behera utzi zuten. Ola hori zegoen lekuan etxe bat eraiki zuten XVIII. mendean eta egun “Ola” izenarekin eza gutzen da. Ola zaharraren arrastoak aurkitzen dira inguruetan, eskoria-koskoak, batik bat.

Larruntzako errotak martxan jarraitu zuen 1954ra arte eta Elizalde errotak eta Errotatxok, 1963ra arte. Larruntza eta Elizalde errotekin haserre-ak eta iskanbilak izan ziren, ez zutelako hornikuntza nahikorik ematen eta herritik kanpora ateratzea debekatu zieten herriarrei. Larruntzako errotatik pasatako urarekin, beheraxeago Errotatxo eraiki zuten 1667an, ataundarren beharrei hobeto erantzuteko. Hasieran bi harrikoa bazen ere, XIX. mende bukaeran harri bat kakaoa ehotzeko erabili zuen Martin Garaialdek, txokolatea egiteko; “Garaialde Txokolateak” sonatuak ziren. 1900. urtean Martin Garaial-

 **KULTURA /** Errotatxo eta Zerrategiaren aldeko lantaldeak eta Atauniker

Larruntzako errota izandakoan eraiki zuten Barandiaran Museoa, Ataungo San Gregorio auzoan. Museoak, Errotatxok eta Zerrategiak Gipuzkoa mailako aparteko altxor bat osatzen dute, XV. mendetik hasita herriaren eta herritarren berri ematen duen ondarea. Arretaz entzunez gero, uraren joanarekin bat entzuten dira ataundarrek bizitakoak. Egungo ataundarrek zaintzen dute orain altxorra.



dek eraiki zuen zerrategi hidraulikoa, Errotatxori erantsita, auzoko beharrei erantzuteko. Zerrategi hori, zerra bertikal batez, lixagailuz eta tornu batez osatuta dago.

BI ERROTA DAUDEN MARTXAN

1998an, Ataungo Udalak erosi zituen bi errotak eta zerrategia. 2010ean Larruntzako errontan eraiki zuten Joxemiel Barandiaran Museoa. Museoa, Errotatxo eta Zerrategia Gipuzkoako Parketxe Sareak kudeatzen ditu eta, Errotatxo eta zerrategiaren eskuzko mantentze-lanak, erretiratura dauden boluntario batzuek egiten dituzte. Elizalde errota, berriz, egoera txarrean zegoen eta bota egin zuten.

Lazkaoko jaunak errotei buruzko monopolioa zabaltzean, Ataunen hamar errota izan dira, hori baitzen garaiko negozio segurua. Gaur egun bi errota daude martxan Ataunen: San Gregorioko Errotatxo eta Aiako Errotatxo. San Gregorioko Errotatxo, Agauntza errearen ertzean dago, Museoaren ondoan eta ura 200 bat metro gorago hartzen du, Uarkaingo presan; ur kanal baten bidez iristen da ura aldapara. Uda garaian urik iristen ez denean, motoponpa baten bidez igotzen da ura errekatik aldapara, dena martxan jarri ahal izateko eta bisitariek errota martxan ikusteko. Errotatxo eta zerrategia egiazko altxorra dira, gure arbasoen historiaren zati bat erakusten duena, manipulatu gabea gainera.

Errotatxok bi turtuki (turbina) agerian dauzka eta bisitariek ikusten dute gure arbasoak nola baliatzen ziren uraren indarrak. Gainera, doan eta zikindu edo kutsatu gabe. Zernolako lezioa!

Ezin ahaztu garai horietako egoera, hotzaldia eta uzta oso txarrak tarteko. Ataunen base-riak bai ugari, baina txikiak, urteko elikagaia zutenak oso gutxi, eta, beste aldetik, familia handikoak.

IKAZKINTZA, ATAUNGO FABRIKA

Semeak koskortu orduko, udaberrian aitarekin basora edo ikatza egitera joaten ziren. Olek egur-ikatza behar izaten zuten, eta asko gainera. Zergatik ez zuten egurra ekartzen basoan egindako ikatza behar-rean olentzat? Guk uste baino azkarragoak ziren gure arbasoak eta esperientziaz bazekiten 1.000 kilo egur ikatz eginda 200 kilotan gelditzen zirela eta kaloria berdinekin. Hori garraiorako sekulako aldea zen batetik, eta, bestetik, surtako hautsa askoz gutxiago egiten zuen: olak garbitzeko, errazago. Aurretik esan dugu, olek mea burdin bihurtzeko ikatz asko behar izaten zutela. Horra zer esaten zuten: 1.000 kilo burdin egiteko, 6.000 kilo ikatz behar izaten zituztela.

Ataunen ikazkintzak 500 bat urte iraun ditu. Lanbide hori izan da Ataungo fabrika nagusia. Udaberrian hasi eta udazkenara arte irauten zuen lantegiak. Lantegiak irailean markatzen zituzten, hurrengo urtean subastan edo kandelan ateratzeko, eta gehiena agintzen zuenari emateko. Lantegiko balorazioa kargaka egiten zuten basoan; 1900. urtean karga pezeta batean baloratzzen zen, eta, 1943an, hiru pezetetan.


Lantegia hartzen zuten nagusiek bazituzten betebeharrak batzuk: ekainaren 20a baino lehen ez zeukaten txondarra pizterik eta baldintza hori ez betetzeak isuna zekarren. 1900. urtean karga-ikatza 18



Alboko orrialdean eta lerro hauen gainean, Zerrategiaren eta Errotatxoren hainbat irudi. Gipuzkoa mailako altxor bat da Ataungo ondare hori.
Joxe BEGIRISTAIN

errealetan saltzen omen zen. Salmentako karga 50 bat kiloko bi zaku izaten omen ziren. Nagusiek ikazkin mutilak San Gregorioko festetan aukeratzten omen zituzten.

Lantegiari hasiera ematera, Pazko hirugarrenean igotzen ziren ikazkinak basora. 1890ean 400 bat ikazkin ba omen ziren Ataungo basoetan. Basora igotzean, lehenengo lana, txabola egitea izaten omen zen eta aterpea zotalarekin egiten omen zuten. Txabola-



ren barrua bi zatitan banatzen zuten. Batetik, sutegia bere inguruarekin eta enbor batzuekin aulkitarako. Bestetik, kamastroa edo logela; koltxoia txilarrezkoak, ardi-larruz edo mantaz estaliak. Ikazkinen mantenua: taloa, baba mantekarekin edo urdaiarekin eta, gehigarria, gazta. Arrantxeroa eta torteroa arduratzen ziren babak egosi eta taloak egiteaz.

Bizimodu horrek 7-8 hilabete irauten zituen eta udazkenean etxeratzean kobratzen

zuten, eta amari entregatu dirua, urtean egindako zorrak ordaintzeko. Zorrok batik bat errotariarekin izaten zituzten eta horiek taia izeneko egur batean koxkak eginez eramaten zuen kontua, eta, amak ordaintzean, aitzoarekin ezabatzten zituzten koxkok. Eta hurrengo urtera arte.

XVI. eta XVII. mendeetan gure lurraldean gosete handia igaro behar izan zuten. Eskerrak Ameriketatik iritsi zen artoari. Horri esker bukatu zen hemengo gosetea; landare horiek ondo txertatu ziren hemen eta gariak halako bost ematen omen zuen. Ondorioz, jendeak garia egiteari asko utzi omen zion.

Berriok denak On Juan Arien lanetatik hartutakoak dira. Benetan eskertu behar diogu gure historia biltzen egin duen lan izugarria. Orain gure egitekoa da berriok guztiok zabaltzea.

Errotatxok bi turtuki agerian dauzka eta bisitariak ikusten dute gure arbasoak nola baliatzen ziren uraren indarraz. Gainera, doan eta zikindu edo kutsatu gabe!

Ataunen ikazkintzak 500 bat urte iraun ditu. Lanbide hori izan da Ataungo fabrika nagusia. 1890. urtean 400 bat ikazkin ba omen ziren bertako basoetan



> «Kalera, kalera» Lleidan, Aizpuruaren eta Altsasuren alde

Errege egunean, Lleidak abesbatza batek Kataluniako hiri horretako Udaletxeko Plazan hainbat kanta abestu zituen. Haien artean, nabarmentzekoa da “Kalera, kalera” euskal abestia, EH Bilduri eta talde horretako diputatu Mertxe Aizpuruari eskaini zieten, Aizpuruak Madrilgo Kongresuan hitz egin zuenean espainiar eskuinak egin zion eraso dela eta.




«EH Bilduk eta Mertxe Aizpuruak mota guztietako irainak jaso zituzten trifatxitoa-
ren eserlekuetatik Diputatuen Kongresuan. Indar guztia, Mertxe!», esan zuen abesbatza-
zaren zuzendariak, bertan zeudenen txaloak jaso zitue-
nak. Ikusle askok preso politi-
ko kataluniarren aldeko jantzi
horiak zituzten.
Altsasuko gazteen familiei
ere eskaini zieten abestia.

> Uri Gellerren «botereak», Boris Johnsonen esanetara

Uri Geller mentalista brita-
niar-israeldarra ezagun egin
zen buruaz koilarak tolestea-
gatik. Orain, Boris Johnsonen
Gobernuak eskaintzen duen
enplegu bat hartzeko prest
agertu da. Johnsonen Gober-
nuak Downing Streeten lan
egiteko «talentudun xelebre-
ak» bilatzen ditu, asteazkene-
an “The Daily Telegraph” kaze-
tak argitaratu zuenez.
Dirudienez, Uri Geller ilusio-
nistak, 73 urte dituenak, lan
eskaintza bitxi horretarako



hautagaitza aurkeztu zuen.
Dominic Cumingsek, Boris
Johnson hauteskunde brita-
niarrak irabaztera eraman
zuen estrategak, bere blog per-
sonalean iragarri zuen duela
zenbait egun lan eskaintza ho-
ri. “The Daily Telegraph”-ek
dioenez, Gellerrek bere aur-
kezpen gutunean nabarmen-
du du entretenimenduaren in-
dustrian egin duen ibilbidea
CIA eta FBIrentzat espioitza la-
nak egiteko «estalki hobeezi-
na» izango litzatekeela.



> Bauman San Mamesen

“Marakana txikia” blogean, Be-
ñat Zarrabeitiak hausnarketa
luze bat eskaini du, athleticza-
leen gustukoa bide dena. Azken
30 urteotako aldaketa sozial,
politiko eta teknologikoek ha-
rremanetan eta komunikatze-
ko moduetan izan duten eragi-
na eta ekarri dituzten balio eta
erreferentzia gero eta globala-
goak ditu hizpide, eta Bilbo eta



Euskal Herria ez direla salbues-
pena dio. Zygmunt Baumanek
bere lanetan sumatu dituen
kezkarako seinaleak gorabehe-
ra, «Baumanek definitzen duen
‘modernitate likidoaren’ aurre-
an, Athletic antidoto bat edo
asaldatze ikur bat da, konpro-
misoa, militantzia, parte har-
tzea, komunitatea eta legatua
behar dituen kirol proiektua».

Mundu zoroa

Koldo Sagasti

Gure patua psikopata gutxi batzuen esku dago. Halaxe ondorioztatu zuen Jon Robson idazle eta kazetari britaniarrak “Psikopata al zara?” izeneko liburuan. Bere lanean “The Guardian” egunkariko kolaboratzaileak kontrastean jarri zituen gaitz psikopatikoaren diagnostikorako ezaugarriak goi mailako ardura postuetan dau den politikari eta enpresarienekin. Bi urte eman zituen psikopatagaiak elkarrizketatzen buru-osasun zentroetan zein korporazio handietako bulegoetan, eta ikerketaren emaitza erabatekoa izan zen: mundua psikopatek gobernatzen dute. Psikopatak ez du damurik, ezta hurkoare-

kiko enpatiarik ere; manipulatzailea da, bere helburuak lortuko baditu; neurri gabeko egoa dauka eta gezurra modu kompulsiboan darabil. Horiexek dira sistema kapitalistak saritzen dituen ezaugarriak, horiexek betez baino ezin da, sistema kapitalistaren baitan, ardura goreneko postuetara iritsi. Zenbat eta gertuago izan izaera psikopatikotik, orduan eta gorago egingo duzu botere katean; atzean uzten dituzunetik errukirik gabe.

Erkatu ditzagun sintoma horiek gizateriaren patua gobernatzen duten gizon-emakumeenekin, AEBetako presidentetik hasita. Psikopata bati baino ezin zaio okurritu, inongo damurik ga-

be, hirugarren herrialde bateko armada-ko burua erail eta munduaren oreka labainkorra kolokan jartzea, ondorioei erreparatu gabe, zertarako eta bere ego neurrigabea elikatzeko.

Etorriko da Etxe Zuriko mandataria, bere erorialdian mundu osoa hondora eraman ez badu, ordezkatu duenik. Baina horrek ez du arazoa konponduko, halako ardura postura iristeko, ordezkoa ere gupidagabetasunaren bidetik helduko baita, kapitalismoaren logika zoro horren barruan. Gure patua psikopaten esku izango da, psikopatak ordezkatu beharrean, izaera psikopata saritzen duen sistema eraldatzen ez dugun bitartean. •

Loretxu

Oihane Larretxea
de la Granja

Ez dakit nola deitzen zaion lagun talde batek elkartzeko duen lekua desagertzeari. Agian ez du izenik; horrela balitz eta ez balu, existitu beharko luke. “Hutsunea”, “falta”, “herrentasuna” adieraziko lukeen hitzen bat. Bizitzak handik eta hemendik ekarri eta eraman gaitu, baina, gaurgaurkoz, gure kuadrillaren sustraiek sortu ziren lekuan jarraitzen dute 34 urte ondoren, Donostiako Alde Zaharrean. Koxkerak, joxemaritarrak eta kaskariak. Peto-petoak.

Duela hamar urte hartu zuen Fermin Calbeton kalean Loretxu taberna klasi-koaren ardura lantalde gazte batek. Etxeko giroa, goxoa, aurpegi ezagunak, auzotarrak. Bai, eskertzen da barraren beste aldean zure izena ezagutzen dutenean. Errondaren hasiera edo bukaera. Batzuetan erronda bera zen Loretxu (orduak handik mugitu gabe). Eta inor deitu beharrik gabe lehenago edo beranduago agertzen zen handik lagun bat.

Azken egun hauek intentsuak izan dira auzoan. Eta tristeak. Portuko Ostertz

taberna kuttun zutenentzat itxieraren albiste gordina ailegatu zen. Jarraian, beste hainbeste Fede mitikoarekin. Urte hasieran Loretxurena izan da txanda. Lokala saldu dute jabeek gaur egun zera- matenek ezin izan baitute mahi gainean zegoen eskaintza ekonomikoa hobetu. Ostalaritza talde batek aurretik eraman duen enegarren taberna izan da.

Bitartean, guk, bihotzez bertakoak diren tabernetara soilik joatea erabaki dugu. Elkartzeko leku bila gabiltza. Bitartean eta beti, eskerrik asko Loretxu! •

**Montse Maritxalar**

UPV/EHUko Informatika Fakultateko irakaslea

Garapen iraunkorrerako teknologia

Pasa berri den astean, 2020ko urtarrilaren 7tik 10era, nazioarte mailan kontsumo-teknologiaren negozioan liderrak diren edota aurrera egiten duten agente komertzialak bildu dira mundu mailako kontsumo-teknologiaren elkarrekin (Consumer Technology Association)

antolatutako urteroko topaketan. Teknologiaren azken berrikuntzen erakustokia da Las Vegaseko elektronikaren kontsumoaren CES (Consumer Electronics Show) erakusketa: adimen artifiziala, hiri adimentsuak, garraiorako droneak, konektatutako telebista, osasun digitala... Horrez gain, “inklusio”, “dibertsitate”, “genero” eta “iraunkortasun” hitzak ere agertzen dira gai-zerrendetan. Iraunkortasuna diotenean, energiaren efizientzia, birziklatzeaz eta material teknologiko iraunkorrez ari dira; baina hori al da garapen iraunkorrerako teknologia sustatzea?

Nazio Batuen Batzar Nagusiak ondorengo hamazazpi helburuak onartu zituen 2015eko irailean Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendan: pobrezia desagertzea; goserik ez izatea; osasuna eta ongizatea; kalitate oneko hezkuntza; genero berdintasuna; edateko ura eta saneamendua; energia eskuragarri eta ez-kutsatzailea; lan duina eta hazkunde ekonomikoa; industria, berrikuntza eta azpiegitura; desberdintasunak murriztea; hiri eta komunitate iraunkorrak; ekoizpen eta kontsumo arduratsua; klima babesteko ekintza; uretako bizitza; lehorreko bizitza; bakea, justizia eta instituzio sendoak, eta, azkenik, itunak helburu horiek guztiak lortzeko.

Beraz, garapen iraunkorrerako teknologiak aipatutako helburu horiek guztiak izan beharko lituzke aztergai. Teknologiak paper garrantzitsua betetzen du munduaren garapen iraunkorrerako prozesuan, bai ingurumena babesteko, bai klima-aldaketaren geldiarazteko, bai gizarte-ratze-prozesuak errazteko, baita garapen ekonomikoa hobetzeko ere. Izan ere, informazioa eta komunikazioaren teknologian (IKT) espezializatutako International Telecommunication Union

(ITU) izeneko Nazio Batuen barruko erakundeak IKTen gaineko txostena idaztean garapen jasangarrirako aipatutako hamazazpi helburuak izan zituen ardatz (“Fast-forward Progress: Leveraging tech to achieve the global goals”). Txosten horretan, besteak beste, datu masiboen erabilera aztertzen da politika-ren diseinua zein erabaki hartzeak hobetzeko. Horrez gain, animalien migrazioak zein ingurunearen aldakortasuna aztertzeko satellite bidezko kartografiaren erabilera aipatzen da. Eta munduko edozein biztanleren aukera berdintasunak bermatzeko populazioaren kartografia ere aztergai da.

2020ko bigarren aste honetan ere, 25 herrialdetako Bigarren Hezkuntzako 700 gazte bildu dira ITUk antolatutako gailur teknologikoan, hau da, Genevan antolatu den etorkizuneko iragarleen gailurrean. Bertan, garapen iraunkorrerako hamazazpi helburuak lortzeko teknologiak izan dezakeen papera eztabaidatzen ari dira: zibersegurtasuna, konpetentzia digitalak, adimen artifiziala, ingurumena, irisgarritasuna, haurren *online* babesa eta hezkuntza dira, adibidez, lantzen ari diren gaitako batzuk.

Gazteak etorkizunaren agente nagusienak direnez, ezinbestekoa da beraien kezka, ideiak eta ekimenak kontuan izatea

2030 Agendan zehazten diren garapen iraunkorrerako helburuak lortu nahi badira. Garapen iraunkorrerako teknologia ez da energiaren efizientzia, birziklatzea eta material teknologiko iraunkorra soilik. Horiek guztiak baino haratago doan kontzeptua da.

Beraz, zenbateraino garapen iraunkorraren planteamendua errotuta dago teknologiaren garapenean? Industriak garatzen duen teknologiaren atzean benetako planteamendu iraunkorra egiten al da? Ikerkuntzan aritzen garenok garapen iraunkorrerako helburuak presente al ditugu gure lana bideratzean? Eta hezten ari garen etorkizuneko iragarle ameslari gazteei garapen iraunkorrerako teknologiaz hausnartzeko tresnak eta bideak aurkezten al dizkiegu? •



Kontsumo teknologiaren erakustokia izan da CES azoka. Robyn BECK | AFP

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RUIZ DE ARCAUTE SENDIA. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAREN ARTXIBOA

BERASTEGIN ESKIATZEN, 1909AN

Mustad enpresa norvegiarra Tolosan finkatu zenean, eskizaletasuna iritsi zen Gipuzkoako udalerri horretara, enpresa hartako langileen bidez. Kirol horren aitzindariak izan ziren Euskal Herrian. 1908an, Policarpo Elosegui, Isaac Lopez-Mendizabal, Jose Izaguirre, Ramon Irazusta eta Jenaro Ruiz de Arcautek beren lehen saioak egin zituzten Lekunberri inguruan eskiatzen. Orduan sortu zen Ski Club Tolosano. Aralar mendilerroaren ondoko Berastegi herria tolosarrak eskia-tzera joaten ziren ohiko lekuetakoa bihurtu zen. Irudian Ruiz De Arcaute sendiko eskiatzaile talde bat ageri da Berastegin, baita haien lagun batzuk ere, 1909an. Ruiz de Arcaute sendia Tolosako La Esperanza paper-fabrika dagoe-neko desagertuaren jabea izan zen. Sendi horren argazki funtsa Aranzadi Zientzia Elkartean dago.

GAUR8



ireki gure leihoa

